


Hemen, eta hemendik aparte




Alex Gurrutxaga Muxika
Kostan, 2022-05-12
(1. zatia)



Xabier Lete


- Oiartzun, 1944-2010
- Obra: 1965 > 2008
- Poesia eta abestia (nagusiki)
 - 6 poema liburu eta kantu liburu bat
 - 2 EP eta 6 LP bere abestiekin
 - 9 disko bertsolaritza klasikoarekin
- Gaiak: gizartea, aberria, heriotza...
- Ibilbidearen interesa





1965 > 1978

1978 > 1990



1990 > 2008

1. «Un poète engagé sous le franquisme»

1965 > 1978



- Produkzio ugaria
- *Ez dok amairu*
- Liburuak
- Protesta kantua
- Poesia soziala
- Prentsako lanak



Testua: *Euskal Herri nerea*

Euskal Herri nerea

- 1968
- Pauso ilunak: existentzialismoa
- Gerra, eguneroko borroka, lana
- Egoera: ilunpetako jarduna
- Elementu propioa: lurra



EUSKALERRI NEREA

Euskalerrri nerea ezin zaitut maite
baiñan nun biziko naiz zugandik aparte
Anaien arpegian
begirada otza,
bihotz-berotasuna
izaten da motza.

Arratsaldeak beti dakarren trixtura
neretzat izaten da bakardade hura,
nunbait ase nairik begiak.
Balio al du nere egiak?
Bidea aukeratzean
gelditu nai nuke nere lurtean.

Ezin erabakiak esantako itzak
pauso ilunak ditu gizonen bizitzak,
neurri zuzen baten bearrak
lotutzen dizkit nere indarrak.
Erreka zabal garbia
zuga egon bedi gure argia.

Urruti joan ezkerre berriz etortzean
nolako zulo beltza nere bihotzean.
Egin dezagun aurrera,
gerra hontan saliatuko gera.
Trixtea etxerik eza.
Lurrak emango dit bere babesa.

Egun bakoitzak badu bere zer egiña,
justiziko bide bat denontzat berdiña.
Denon artean izanikan
ezin ukatu gure lanikan.
Ilunpetako jarduna
eriotzak pakez beteko duna.

Xabier Lete

HG-1

HERRI-GOGOIA - EDIGSA

EUSKALERRI NEREA

(PUEBLO MIO)

Pueblo mío, me cuesta quererte
pero dónde podría vivir lejos de ti
En el rostro de los hermanos veo mirada fría
cuán poco duran los impulsos del corazón!

La tristeza que siempre trae la tarde
es para mí esa soledad conocida
de quien busca dónde posar la mirada.
Valdrán quizás nuestras verdades?
Al decidir el camino
quisiera continuar en mi tierra.

Al no poder precisar las palabras dichas
tiene muchos pasos torpes la vida del hombre;
la necesidad de una norma justa ata mis fuerzas.
Ancho riachuelo limpio
que en ti se halle nuestra luz.

Si marchas lejos, qué agujero tan negro
en el corazón al volver a retornar.
Decidamos continuar,
combatiremos siempre en esta guerra.
Triste quien carezca de casa.
En cambio, a quien quede la tierra le dará cobijo.

Cada día trae su quehacer,
este camino hacia la justicia igual para todos.
Sintiéndome uno más, no puedo negar mi esfuerzo
en este trabajo entre tinieblas
que la muerte llenará de paz.

Xabier Lete

J. A. Labordeta – Aragón (1974)

Polvo, niebla, viento y sol
y donde hay agua, una huerta;
al norte, los Pirineos:
esta tierra es Aragón.

Al norte, los Pirineos
al sur, la sierra callada,
pasa el Ebro por el centro
con su soledad a la espalda.

Dicen que hay tierras al este
donde se trabaja y pagan...
Hacia el oeste el Moncayo
como un dios que ya no ampara.

(...)

Pablo Guerrero – Extremadura (1975)


(...)

Extremadura,
Soledad llena de encinas
Sobre campos con veredas,
¿Por qué se fueron los hombres
De tu tierra?
Extremadura,
Tierra de conquistadores
Que apenas te dieron nada.
Ay, mi Extremadura
Amarga
Ay, mi Extremadura
Levántate y anda.

Azken euskaldunaren heriotzea



Euzkadi madre mía
no puedo quererte
Pues sólo me prometes
sufrimiento y muerte
Mas sufriendo y muriendo
he de defenderte
A golpes de un martillo
vigoroso y fuerte.




(Xabier Leterekin batean)

Belarra ta kipula
songoro kosongo
Euskaldunikan ez da
zeruan egongo
Parabola botata
Daude guztiz ondo
Gabriel Aresti eta
Lurdes Iriondo.

2. «Aguanta zaitzateela zuen ama santisimak»

1978 > 1990



- Isiltasuna
- Krisia
- Biraketa
- *Muga*
- *33en manifestua*
- Politikan sartu
- Gaixotu

Testuak: *Aberria, orain*
Heriotza utopi izendatu dutenei

Urrats desbideratuak (1981)

Heriotza utopi izendatu dutenei

Zergatik oraindik ere
itxaropenaz mintza?
Zergatik eta zertarako
solas zaharkituak berriztatu?
Hain azkar ahaztu ote zaizkigu
herenegun guztietako
erailketen oihartzunak?

Gure denbora etsipenarena da,
lagunok,
eta trolebus zikinetan bidaiatzen dugu
suburbioetako kanposantuetara.
(...)

olerkiak 10


urrats
desbideratuak



xabier lete



CAP

COLECCION PREMIOS LITERARIOS CIUDAD DE IRUN



Aberria, orain

Eta aberria, orain
lotsaldi eta erorka guztien izendapen zait:
atari horretatik begiratu ditut egunsentiak
gertakizun harrigarriari alferrik itxaronez.
Hemen, atzo amorratuak eta gaurtasun herabeak
behartu dizkidate gizakoi ororen pasarte arruntak.
Hemen, nire urratsek labirinto moldaezina irun dute
ilunabar erraustueta
biharraren emaitza
etsiperatuki antsiatu dugularik.
Hemen, nire itzala ororen itzal zehaztugabe
arras galduko dela onartu behar izan dut.
Ez gaitu maitasunak batzen, ikara larriak baizik.
Horregatik natzaio agian leial aberri dohakabe honi.



3. «Abertzaletasuna, nik ulertzen dudan moduan, bukatua dago»



1990 > 2008

- Itzulera
- Bi disko eta bi liburu, eta gehiago
- Berrindartzea
- Sosegua, pietatea

Testuak: *Aberri ilunaren poema*
Euskal Herri nerea (1992ko bertsoa)
Aberriari

Euskal Herri nere, aberri ilun

Arratsaldeak berez dakarren tristura
neretzat izaten da bakardade hura:
argirik gabe begiak, balio al du gure egiak.
Bide bat aukeratzean gelditu nahi nuke gure lurrean.

Erabaki baten bila zenbat urrats galdu
arbasoen aberria ez nuke nahi saldu...

(...)

Egun bakoitzak baitakar bere zeregina
ekintzetan gauzatzen da bizitzaren grina...

errespetu bizia, elkarri merezia,
guziok berdina gara:
hauskorrak, hilkorrak azkenean.

Euskal Herri nerea (1992)
Aberri ilunaren poema (1991)



(...)

Behar zaitut, Euskadi, kolera bezalako,
zu zaren bezain makur ni ere naizenez...
mardarikatzen zaitut deskantsurik gabe
irainez musukatuz errenditu arte.

Maite zaitut, Euskadi, eta alferrik da
ez zaitudala maite oihukatzen badut,
ohera naramazu gauero zurekin
maindire odolduak irentsi nazaten.

Aberriari (1992)

Ireki zuen ateak, utzi denei itzultzen;
gutxi dira, gutxi gara. Garai batean zen:
aski leku guzientzat **aitaren etxean**.

Hertsi zen ataka, nehor ez da sartzen
gure bihotzetan. Hurbil bitez haiek ere,
gailur urrunetan gudarosteari
ikur iraindua aireratu ziotenak.

Eta besteak, zekenak, eresi zaharra lokaztutakoak.

(...)

Barkatu baitzuten, ahaztu baitzuten,
haiei ere noizbait barkatuko zaie
eta isilean berriz eraikiko **pietate handiaren** eternitatea.

Esan dezagun bada «ogenak barkatu».

Lurra denena baita aberri ttipi honen
amets eremuan: **arbasoen egoitza berreraikietan**.



Aberria poetika da.
Nazionalismoa pasio politiko bat da.
Abertzaletasunaren garrantzia.

Neretza abertza da eraiki beharko genukeen errealitate bat, anaikorra, denon artean eraiki beharko genukeena, eta lurralde bat poetikoki (Hölderlinek esaten zuen bezela) tratatu eta errespetatu beharko genukeena; eta lurraldearekin batera ohiturak, eta lurraldearekin batera antzinatasunaren aztarrenak.



Gogoetak eta galderak

- Ondo irudikatu al dugu eboluzioa?
- Hala bada, balio al du besteentzat?
 - Mikel Laboa? Lourdes Iriondo? Joxan Artze? Benito Lertxundi?
 - Idoia Estornés? Joseba Zulaika?
 - ...?
- Ez al da Leteren ibilbidea, nola edo hala, euskaldun askorena?




Non ote zaudete kantatzen

Alex Gurrutxaga Muxika

Kostan, 2022-05-12

(2. zatia)





Xabier Lete, Urepelen, 1991n

1978

Azala: Juan Luis Goikolea



lore bat, zauri bat



XABIER LETE

Diskoetxea: Herri Gogoia
(181. zk.)



Teillatuan elurra
herrian ekaitza
bihotzean azken agurraren beldurra...
udazkenaren hotza
loratzeko eziñak
bizitzaren garrasia heriotz egiña.

Eskuak luzatzean
bizitza jasotzeko asmoz
eta lurra bakarrik behatzetan sentittuz,
zeiñen beltza den ekaitza
zeiñen hotza elurra
zeiñen deigarri bizitza heriotza hontan.



Adiskide bat bazen orotan bihotz-bera,
poesiaren hegoek
sentimentuzko bertsoek antzaldatzen zutena.

Plazetako kantari bakardadez josia,
hitzen lihoa iruten
bere barnean irauten oiñazez ikasia.

Nun hago, zer larretan
Urepeleko artzaina,
mendi hegaletan gora
oroitzapen den gerora
ihesetan joan hintzana.

Hesia urraturik libratu huen kanta,
lotura guztietatik
gorputzaren mugetatik aske sentittu nahirik.

Azken hatsa huela bertsoerik sakonena,
iñoiz esan ezin diren
estalitako egien oihurik bortitzena.

Xalbadorren heriotzean

Xalbador

- Bere barnean irauten oinazez ikasia
- Orotan bihozbera
- Bakardadez josia

- Plazetako kantari
- Sentimenduzko bertsoek antzaldatua
- Gorputzaren mugetatik aske



- **Poesiaren** hegoak
- Sentimenduzko **bertsoak**
- Hesia urratu duen **kanta**

Esan ezin diren **estalitako egien** oihurik bortitzena

Nafarroa

- Lurraldearen garrantzia
 - Haur/gazte: Bidasoa, Ultzama, etab.
 - Heldu: Obanos, Leire, etab.
- } *arragoa*

Larhun-gainean sorgiñen dantzak nabaitzen ditut arratsaldean, lurrak badaki kontu hoien berri eta hor dago ixil-ixilik.

- Aberria, lurraldearen bizipen poetiko bezala.

Heriotza

- Zer larretan?

“Hilezkortasunik baldin bada, horretarako nahiko nuke, maite izan nituen pertsona hauek, Xalbador bezalako pertsona hauek, nonbait egunen batean hor, larre eder batzuetan, belaze eder batzuetan topatu ahal izateko. Nik hori nahiko nuke izan dadin hilezkortasuna”.

- Xalbador: *Hogoi urtetan bezala.*

Gaztek diote: “Amodiorik ez da zahartzearekin!”
Gu zahartzeak ez gaitu, aldiz, gehiago baizik bat egin;
Jaunari diot biak batean har gaitzan noizbait berekin,
zoragarrizko loretegi hau bi zati egin ez dadin.

- Lete: *Jardin bat zuretzat.*



Errepika

Nun hago, zer larretan
Urepeleko artzaina,
mendi hegaletan gora
oroitzapen den gerora
ihesetan joan hintzana.

Aberria (Nafarroa), heriotza, poesia, bertsolaritza...

eta...



Aitor Izagirre

J. Oteiza eta *Quousque tandem*



Aita Donostia eta euskal kantutegia

maite ditut
maite
geure bazterrak
lanbroak
izkututzen dizkidanean

zer izkututzen duen
ez didanean ikusten
uzten

orduan hasten bainaiz,
izkutukoa...
nere barruan bizten diren
bazter miresgarriak,
ikusten

J. A. Artze



M. Laboa





Lourdes Iriondo

*Xorittoa norat hua
bi hegalez airian*



“Aberria nonbait baldin badago ez dago ez ideologietan ez politikoen erranetan, aberria musika eta kantu xahar hauetan dago: hor sentitzen gara, ni behintzat, kokatuak eta emozionatuak, eta paisaia bat ikus genezake, antzeman genezake, ororena, aspalditik letorkigukeena, hain hunkigarria”.

Esku izoztuak (2005, 2008, 2010)

(2005. urteko azaroaren 27n, igandea,
Lurdes bisitatzera erietxera nindoala)

Azaroko arratsaldean elurra ikusi dut
Bianditz mendiaren hegal-gailurretan,
xuri hartan begirada itsatsirik
“berriz ere negua atarian”
esan diot ahots apalez nere buruari...



txori kantazale ederrak
oroitzapen den gerora ihes joanak
hor zaudete nonbait

